

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

2013/2/22 | 378

- 🌀 Ibon Artola eta Antton Izagirre
- 🌀 "Gabriel Aresti bizsitan"
- 🌀 Tolosaldeko osasun zerbitzua kezka iturri
- 🌀 Irakurlearen begietatik: Karmele Jaio, Ez naiz ni
- 🌀 Ikasleen txokoa: Giza Eskubideen astea



Tolosa
UEMA kide
izateko prest

✓ **Elikadura eta dietetika aholkularitza**
Ondo jateak zure bizi kalitatea hobetzen du

✓ **Egoera guztietara egokitutako tratamenduak**
Pisuaren kontrola • Digestio arazoak •
Diabetea • Kolesterolak • Hipertentsioa •
Hautzaroa • Nerabezaroa •
Heldua • Haurdunaldia • Edoskitzea •
Menopausia



**Cristina
Pérez Garay**
elkadura eta dietetika
aholkularitza

M. 667 397 019
cpgnutricion@gmail.com

Tolosa - Ordizia - Urretxu

NUTRIZIO AHOALKARITZA OSASUN ZENTROA

AMAIA ETXETXIPIA
"Biologian" lizentziatua
"Giza Elikadura eta Dietetikan" Diplomatuak

DIETA PERTSONALIZATUAK
OBSIDATEA
NUTRIZIO BEREZIKETA
ARIKETA FISIKOA
HELDUAK ETA HAURRAK

KOLIGIATU ZBK. 587 R.D.S. 89/12

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888

aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea, 7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel. 943 650 375
Faxa, 943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com

SUPEREKO
Zerbitzua eta kalitatea

*Zure Tolosaldeako Super-a,
orain OnLine*

<http://www.supereko.net>

Erosketak etxera eramango dizkizugu
Eskerrik Asko

1.000 modelo baino gehiago
57€
graduaturiko kristalak barne

mó
zuretzat sortuak

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefona: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Kordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustín Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Ione Gorostazu, Josu Iztueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Bidera Publizitatea
661 678 818 • aetxaniz@bidera.eu
Banatzaileak: Olatz Garmendia,
Juankar Arregi
Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Galtzaundi
Diseinua: Zigor Agirrezabala
GOITUK
Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 4.500 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Franko Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketak, Anoeta, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.




kutxa gizarte ekintza

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jasotzen du.

Galtzaundin azaldutako iragarleek diruz lagundu dute argital-pena.

nonzer



Erreportaia:
Tolosa UEMA kide izateko prest

Tolosako Udal Gobernuaren lehen estrategikoetako bat herria Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) kidea bilakatzea izan da. Prozesu horren baitan Tolosako Udal Plenoak UEMA-ko Estatutuak onartuta, Mankomunitatearen erabakiaren zain dago Tolosa. Inaki Irazabalbeitia UEMA kide izatearen abantailaz mintzatu da Galtzaundirekin.

8-11. orrialdeak

Xabier Bengoetxea Muxikak Soziolinguistika Klusterreko V. Hausnartu Euskal Soziolinguistika Lehiaketako bigarren saria eskuratu berri du. "Arnasgunea. Ezaugarriak. Zenbait arnasguneren egoeraren behaketa" lanarekin.

Elkarrizketa: Xabier Bengoetxea

14-16. orrialdeak

6	Iritziaren leihoa: Ibon Artola eta Antton Izagirre	4-5
6	Normalizazioa: "Gabriel Aresti bizsitan".	6-7
6	Eskualdeko albistea: Tolosaldeko osasun zerbitzua kezka iturri	12-13
6	Irakurlearen begietatik: Karmele Jaio, Ez naiz ni	17
6	Iñauteriak 2013	18
6	Ikasleen txokoa: Giza Eskubideen astea	19

Frankoren, monarkiaren eta kapitalisten sinboloa



Ibon Artola
Euskal Herria Sozialista-ko kidea

1785az geroztik, bandera “rojigualda” izan da klase dominatzaile espainiarraren eta bere kolaboratzaileen bandera. Ez zen kasualitatea izan Frankok eta bere altxamendu faxistak kolore horiek berreskuratu izana II. Errepublikako “hirukoloreduna” suntsituz.

Bankariek, enpresari handiek, lur-jabe handiek eta elizak (euskal kapitalistak barne, noski) antolatutako altxamendufaxistakondorio larriak ekarri zituen Euskal Herriko eskubide nazionalentzat ere: guztiz debekatu ziren ikurriña, euskara eta euskal kultura, eta basakeri handienarekin jazarri ziren. Bonba faxistek erre zuten Gernikan, 1949ko azaroaren 2an bertako alkateak euskaraz zeuden panteoiak eta hilobiak gazteleraz jartzeko agindu zuen. Basakeriaren adibide bat.

“Rojigualda” frankistapean burgesia espainiarrak eta euskal kapitalistek irabazi handiak pilatu zituzten espetxeetako lan esklaboari eta langileak zapaltzeari esker. Burgesiak honako hausnarketa egin zuen: “Errepublikak ez badu balio egoera kontrolatzeko diktaduraren alde egingo dugu, eta honek gure interesak arriskuan jartzen dituenen monarkia edo demokrazia burgesaren beste edozein erregimen aukeratu dugu”. Horixe gertatu zen gaizki deitutako trantsizioan.

Frankok, bere bidearekin jarraitzeko, 1969an bere ondorengoa aukeratu zuen: Juan Carlos printzea. Franko hil eta bi egunera, 1975eko azaroaren 22an, Juan Carlos Espainiako Errege izendatu zuten eta Mugimendu frankistaren, diktaduraren, printzipioak zin egin zituen. “Rojigualdak” jarraipena zuen eta ondoren etorri ziren konstituzio espainiarra eta Gernikako estatutua.

Egia da noski diktadura ez dela demokrazia burgesaren berdina, egia da paperean behintzat esku-

bide gehiago azaldu zirela, ikurriña legeztatzea adibidez. Hala ere, bi gogoeta egin beharra daude honi buruz. Batetik, ez da ahaztu behar eskubiderik txikienak ere borroka gogorrari esker lortu zirela. Bestetik, ez da ahaztu behar PSOE eta PCEko agintariek beren militantziari, langileei eta eskubide demokratiko nazionalen egindako traizioari esker monarkiaren eta “rojigualdaren” erregimen kapitalistak bere horretan jarraitu zuela: burgesiak bere enpresak mantendu zituen, irabaziak zituzten enpresa publikoak pribatizatu zituzten eta gaur ere ikurriña irabaziak izaten jarraitzen dute. Estatu aparatua torturatzaile, hiltzaile eta funtzionario frankistez beteta geratu zen, ez zen inolako depuraziorik egin. Elizak bere jabetza guztiak

mantendu zituen eta gaur egun irakaskuntza kontzertatuaren enpresari handienak dira. Autodeterminazio eskubidea bertan behera geratu zen eta eskubide demokratikoak zapaltzen jarraitu zen.

EAJ eta euskal bankari eta enpresariak gustura geratu ziren eta, demagogiak demagogia, babesa eman zioten prozesuari. Zerbaitegatik esan zuen Xabier Arza-lluzek 1978ko konstituzioa Errepublikako konstituzioa baino hobea zela.

Errepublikako, frankismo-ko eta “trantsizioko” sistema politiko eta ekonomikoa daukagu oraindik: kapitalismoa. Banku eta enpresa handien jabeak dira agintzen dutenak. Eta erregimen honek, bizirauteko, beharrezkoak ditu zapalkuntza soziala eta nazionala. Orain, Tolosaldeko udaletxeetan “rojigualda” inposatu nahi dute. Hauen errepresioak ez du etenik eta ez du izango. Mota honetako erasoei aurre egiteko eta Euskal Herriaren eskubide demokratiko nazionalak defendatzeko bide bakarra borrokak izaten jarraitzen du. Horregatik, inposaketa berri honen aurka beharrezkoa da Bai Euskal Herriari-k martxoaren 9rako Tolosan deitu duen mobilizazioa jendetsua izatea. Trianguloatik abiatuta manifestazioa 12:00etan hasiko da. Defenda ditzagun gure eskubideak!



Erraustegiak eta minbizia

Argigarria bezain eztaba daezina ikerketa egin duen ikerlari taldearen eta Institutuaren izen ona aintzat hartzen badugu. Hala ere, izango dira ikerketari garrantzia kendu nahiko diotenak, bereari eutsi eta hondakinen tratamendurako erraustegiak dituzten modernotasuna defendatuko dutenak; erraustegiak dituzten Europako hirien aitzindaritzak aldarrikatuko dutenak. Baina, ikerketa ezagutu dutenen artean inork gutxi defendatuko du halako azpiegiturarik bere herrirako. Are gehiago, bere herrian antzeko azpiegiturarik ezarri nahiko balitz inor gutxi geratuko litzateke besoak gurutzaturik. Zalantzan jartzen dut jarrera bera mantenduko ote luketen, egun, lotsarik gabe erraustegiaren aldeko jarrerari eusten diotenek.

Hondakinen bilketa eta tratamendurako bi sistemen arteko talka bizi-bizirik dagoen honetan, aipaturiko ikerketak, gure herrian ere, sekulako garrantzia hartuko du. Gipuzkoako beste herri askotan bezala, Tolosan ere, epe motz eta ertainera bilketa sistema berri bati hasiera eman beharko diogu. Sistema berriaren atzean helburu argia egon beharko du: ahalik eta birziklapen tasarik handien lortu eta erraustegiaren beharra behin betiko ekidin. Adituak diotenez, berrerabili eta hondakinak gutxitzeaz gain, %70etik gora birziklatzea ezinbestekoa izango da erraustegiaren beharra alboratu nahi baldin badugu. Hori da helburua eta zaila egiten zait helburu horren aurka inor egon litekeenik pentsatzea. Ez baita nahikoa, ez eta etikoki zuzena, gure herrirako

nahiko ez genukeen azpiegitura kutsagarririk besteentzat desiratzea edota gure erazkeriaz eta axolagabekeriak beste batzuei ezarri behar izatea.

Egoerak arduraz jokatzeko eskatzen digu. Arduraz jokatzeko udal agintariei, eragile politiko, ekonomiko, sozialei eta herritar orori. Gaur gaurkoz, hondakinen kudeaketan arduraz jokatzeko etxetik bertatik hastea eskatzen digu. Gure etxeetan, lantoki, erai-kin publiko eta pribatueta hondakinen kudeaketa arduratsuak gaika jasotzea eta gaika biltzea eskatzen digu. Ondoren, horien tratamendua ahalik eta garbiena eta osasuntsuena egitea. Osasun arrazoiak eta arrazoi ekonomikoak nahikoa izan beharko lukete hiritar guztiok eginkizun horretan irizpide bakarrez aritu arazteko.

Zoritzarrez, alderdi interesak eta interes partikularrek hondakinen bilketa eta tratamendua- ren gaineko gaia beste eztabaida batzuetara eramane dute. Gure herrian ere oso gertutik bizi dugu gaiaren erabilpen interesatua. Harriduraz ikusi dugu nola batzuk errauskailuaren defentsa sutsua egiten duten. Jarrera bera mantenduko ote lukete haien bizilekutik gertu kokatuko balitz? Horien artean ezagutzen ditugu orain gutxi arte haien bizilekuen ondoan kokatzen ziren goi tentsioko hariak lurperatzeko buru-belarri aritu direnak, egun, errauskailuaren onurak aitortu eta osasunarentzat ondorio kaltegarriak ukatzen dituzten batzuk. Zer zilegitasun izan dezakete besteen osasunarekin jolasteko?



Antton Izagirre
Irakaslea

Hautsak harrotu ditu, berriro ere, Madrilgo Carlos IIIa Osasun Institutuko ikerketaren ondorioak aditzera eman izanak. Ondorioen artean, horrela dio aipaturiko ikerketak *“Gure emaitzek hipotesia berresten dute, alegia, erraustegien eta hondakin arriskutsuak berreskuratu edo ezabatzeke instalazioen inguruan dauden herrietan handiagoa dela, eta estatistikoki esanguratsua, minbiziaz hiltzeko arriskua, eta, bereziki, arrisku are handiagoa urdail, gibel, pleura, giltzurrun eta obarioko tumoreei dagokienez...”*

Gutxi edo gehiago kostako da herritar orok kontzientzia har dezana, baina eginaren poderioz lortuko dugu. Lan ugari egin beharko da. Borondatezko birziklatzeak eman beharrekoak eman ditu. Ahaleginak ez dira nahikoa izan erraustegien beharra saihesteko. Hartu beharreko neurrien artean gaikako bilketa derrigortzea ekarriko du. Gaitz erdi erraustegiaren mamua behin betiko uxatzea lortuko bagenu.





"Gabriel Aresti bizitan". Oskorriren kontzertu berpiztua

Gabriel Aresti bizitan eta bisitan izango da datorren otsailaren 22an Leidorren. Oskorri sortu aurretik kide fundatzaileek harreman sakona izan zuten Arestirekin. Abestietan, filosofian, lan egiteko eran izan zuen eragina Arestik Oskorriengan. 30 urte luze pasata, iturburuetara itzuliz, Oskorrik Arestirengan inspiratutako errepertorioa aurkeztuko du Tolosan Kilometroak 2013 programazioaren baitan. Sarrerak 12 euroren truke, www.kutxasarrerak.net webgunean eskura daitezke.

Xabier Zeberio tolosarra, duela 16 urte Oskorriko partaide dena, emanaldiaz mintzatzeaz gain, KMK13rekin izandako lan-kidetzaz ere hitz egin du. "Gabriel Aresti bizitan" emanaldia, "beteranoak hunkitzeko eta gazteei Aresti ezagutarazteko modu ederra da".

Nola sortu zen emanaldi honen ideia?

Uda aurretik zerbait berria egiteko gogoia izan genuen. Gabriel Arestiren errepertorioa berreskuratzeko eta zerbait berezia egiteko gogoia aspaldi zegoen. Gabriel Arestik Oskorriren hastapenetan taldea gidatu zuen idazlea izan zen.

Taldeko beteranoek oso harreman estua izan zuten berarekin eta kantu asko osatu zituen taldearentzat.

Entseguekin hasi ginenean, KMK13ren aitzakian, bilera batean honako emanaldia urteko programazioan sartzeko proposamena egin zen. Data jarri eta estreinaldia Tolosan egitea erabaki zen. Batetik beraz, iturburuetara itzultzeko gogoia egon da, Oskorriren hasierako soinu akustikoagora eta bestetik, KMK13 egitasmoarekin uztartu nahi izan da.

Kanten aukeraketa prozesua erraza izan da?

Taldeko gazteena naiz eta niretzat pertsonalki deskubrimendua izan da. Oskorriren diskografia guztia ezagutzen nuen baina txundituta geratu naiz garai hartako errepertorioare-

kin eta, batez ere, Gabrielekin batera sortu ziren kantekin.

Aukeratu ditugun kanta Oskorrik Gabriel Arestiren letrekin egindakoak dira baina baita Gabrielen influentziak irekitako esparruetakoak ere. Horren adibide da "Mosen Bernat Etxepare, 1545" diskoa, Etxepareri buruzko monografiko hau Arestiren proposamena izan zen.

Guztira 35-40 kanta bildu dira eta ondoren aukeraketa bat egin da. Irizpide artistiko ezberdinak kontuan hartuta, 22-24 kanta aukeratu ditugu azkenik. Prozesu polita izan da eta lan historikoa eta aberasgarria gainera. Ezagutzen ez nuen esparru batean sartzeko aukera eman dit; garai bateko testuetan murgilduz, konturatu naiz duela 35-40 urteko letra erreinbidikatibo eta gogorrek egun gaurkotasuna dutela, bizi dugun krisi honetan berdin idatz litezkeela. Garai hartan, zentsura tarteko, kantu batzuk ezin izan ziren kaleratu. Politikoki eta sozialki garai zailak ziren. Guztiagatik errepertorioa oso berezia eta emotiboa da.

Nolakoa izango da kontzertuaren eszenografia, giroa?

Gabriel Arestirengaraiko estetika hori lortu nahi izan da. Oso kontzertu intimoa eta akustikoa da. Taldeko bostok bilatuta eta errepertorioak ere hala eskatzen duelako kontzertua intimoagoa eta akustikoagoa da. Ikusle eta entzulearekiko gertutasun eta



goxotasun gehiago dago eta hori ere estetikoki bilatu nahi izan dugu.

Eszenarioan entsegu lokal batean bezala paratzen gara; batzuk zutik, besteak eserita, atrezzoko elementu batzuekin, garai bateko estetika horrekin...

Emanaldiak "Gabriel Aresti bizitan" du izenburu. "Bizzitan" hitz-jokoak atentzioa deitzen du.

Bisitan eta berbizitzen. Gabriel Arestiren imajina, pertsona eta balore guzti horiek bisitan eta balore guzti horiek bisitan dira garai bateko kantu horietan, baina gaur egun bizirik direla.

Natxo de Felipek komentatzen zuen, adin bat daukan jendeak errepertorioa memorian duela, eta gazteek eskolan ikasitako gutxi hori baino ezagutzen ez dutela. Arestiren bizitzaz, bere benetako nondik norakoaz ezagutzeko aukera emango du kontzertuak; pasarteak, anekdotak, kantauak nola landu ziren esplikatuz.

Estreinaldi kontzertua Tolosan izango da KMK13ri babesa eskainiz...

Oskorri bezalako talde batek Tolosan estreinaldia egitea berezia da. Aukera oso polita da Tolosan eskaini ahal izatea KMK13ren eskutik, ez da egunero gertatzen den gauza bat. Elkarlan oso polita izan da. Proiektu berezi baten aurkezpena da, literatura eta euskara presente daude, KMK eta Laskorain Ikastolaren filosofiarekin bat datorren proiektua da. Gogotsu gaude.

KMK13 proiektuarekin elkarlan bat baino gehiago burutu duzu; Ahora! kantaren produktore lanetan aritu zara. Nolakoa esperientzia izan da?

Lan potoloa egin dugu. Oso pozik gaude jendearen erantzunarekin. Sekulako asebetetzea izan da. Lan eta ardura handia izan da. Ikasle ohia naizen aldetik, pertsonalki ohorea izan da ikastolaren kanta produzitzeko

edo koordinatzeko ardura hori hartzea. Inauterietan Ahora! kanta asko entzun da, jendea gustatu zaiola ikusi da, indarra dauka eta harrera ona izan du. Pozik gaude KMK13ren partetik eta parte hartu dugun abeslari eta musikari guztion aldetik ere. Oso taldeko lana izan da, jende askok hartu du parte, jende asko bildu da kantaren inguruan.

Sekulako apustua egin da hainbat gauzetan: kantua Tolosatik ateratzean, Tolosako jendearen eskuetatik eta gazte jendea aukera ematean. Azkeneko hau ez da ohikoa, Tolosan musikari on asko daude, traiek-toria handikoak eta oso ego-kiak, baina jende gazteari aukera eman nahi izan zaio. Emaizta neurrikoa izan da eta oso pozik gaude.

KMK13 egitasmoak zer utziko dio Tolosari eta euskarari?

Eragin handia izango du, gehien bat kontzientziazio, auzolan eta elkarlan aldetik. Ekonomikoki ez dakit hainbeste izango den, egungo egoera ez da egoerarik samurrena dirua jasotzeko, baina hori esparru txiki bat baino ez da.

Jendearen inplikazioa, gauzak egiteko gogoia, Kilometroak proiektua aurrera ateratzeko indarra eta euskara bultzatzeko lana lortzen ari dira. Ez da erraza giro hori sortzea eta sortzen ari da; euskarari bultzada emango dio, jendea kontzientziazteko balioko du.

Arestix
LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.
Lorategi lanabesak.
Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel.: 943 673 118 Tolosa

euskararen semaforoa
euskararensesemaforoa.blogspot.com

Errotulazioa & inudia
Vicente
www.rotulosvicente.com

943 69 02 94
taller@rotulosvicente.com
Laskibar bailara 25, 1-04 atea
20271 Iruia (Gipuzkoa)





Tolosa UEMA kide izateko prest

Tolosako Udal Gobernuaren lerro estrategikoetako bat herria Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) kidea bilakatzea izan da. Prozesu horren baitan Tolosako Udal Plenoak UEMAko Estatutuak onartuta, Mankomunitatearen erabakiaren zain dago Tolosa. Iñaki Irazabalbeitia UEMA kide izatearen abantailez mintzatu da Galtzaundirekin.

Naiara Roldán de Aránguiz

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea 1991n formalki eratu zen, baina aurretik 80ko hamarkadan euskararen normalizazioaren bidean bere lehen urratsak eman zituen. Hasierako osaketa horretan 14 udalek hartu zuten parte eta egun, 22 urte berandago, dagoneko 66 udalerrri biltzen dira UEMAren baitan. Epe motzean gehiago ere izatea espero du Mankomunitateak, tartean Tolosa.

Izan ere, Tolosak UEMA kide izateko bidean eman beharreko pausoak eman ditu. Iragan urtarillaren 29ko osoko bilku-

ran UEMAko Estatutuak onartuta, iradokizunetarako jende aurrean jarrita eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zabaldu-ta, hurrengo pausoa UEMAk berak eman beharko du. Hau da, UEMAko Batzar Nagusiak Tolosa erakundearen kide izatea onartu beharko du. Aurreikusitako data martxoaren 16a izan daitekeela aurreratu du Iñaki Irazabalbeitiak, Tolosako Udaleko Hizkuntza politika eta Hezkuntza zinegotziak.

Tolosa UEMAko bazkide izateko 17.000 euroko kuota ordaindu beharko du eta 10.000 biztanletik gorako herria izanik, erakundeko Batzar Nagusian bost ordezkari izango ditu: Ibai Iriarte, Lore Agirre, Hasier de los Rios, Miren Urko-

la eta Iñaki Irazabalbeitia.

Normalizazioaren hiriburua

UEMAko herri guztiek bi baldintza bete behar dituzte. Alde batetik, biztanleriaren %70a edo gehiago euskalduna izatea eta bestetik, herriak euskaraz bizitzeko borondatea izatea. Tolosak aipatu bi baldintzak betetzen dituela ikusita, kide izatearen arrazoiak eta abantailak dira aztertu beharrekoak.

Iñaki Irazabalbeitiak erantzuna luzatu dio aipatu planteamenduari: "Tolosalde Euskal Herrian eskualderik euskaldunena da, hitzunen ikuspegitik eta baita bizitza sozialean euskarak duen indarragatik. Ikuspegi horreta-

tik, Tolosaldeko 15 herri jada badaude UEMA. UEMA kide izan nahi dugu, eskualde honen euskalduntasuna indartzeko, adierazteko eta aurrera begira elkarren artean hizkuntza politika komun bat aurrera eraman ahal izateko eskualdeko herri ahalik eta gehienen artean".

Izan ere, dagoeneko eskualdeko Aduna, Alegia, Altzo, Amezketza, Anoeta, Balarriain, Belauntza, Elduain, Gaztelu, Ikaztegieta, Irura, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain eta Orexa dira Mankomunitateko kide.

Tolosa alor ezberdinetan eskualdeko hiriburu izaera duen bezala, euskararen normalizazioan ere paper hori betetzea bilatzen du Udalak: "Tolosak euskararen normalizazioan ere eskualdeko hiriburu izan behar du. UEMA sartuta, beste herriekin batera, elkarlanean eta koordinatuta hizkuntza politika egokiagoak ibil litezke euskararen normalizazio osoa eskuratzeko eta benetan Tolosan eta Tolosaldean euskaraz hizkuntza sozial nagusia izan dadin".

Are gehiago aztertuta, Tolosa UEMA kide izateak tolosar

herriar bakoitzarengan bere eragina izango duela azaldu du Iñaki Irazabalbeitiak: "herriar euskaldunari, euskaraz bizi nahi duenari, UEMA egotea hizkuntza eskubideak errespetatzeko bermea da. UEMA egotea ez da bakarrik seilu bat jasotzea, betebeharrak batzuk eskatzen ditu. Udalak herriarrek dituen harremanak, udaletxe beraren lan hizkuntza, beste administrazioarekin harremanak hizkuntza irizpide batzuetan emango dira. Herriarrek ez dute arazorik izango udalarekin euskaraz komunikatu ahal izateko eta horrek gizarte osoan albo eragina izango du".

Tolosako Udalak argi dauka herritarren aurrean traktore lana burutzea ezinbestekoa dela, euskararen normalizazioan benetako albo eragina gerta dadin. Horregatik, Iñaki Irazabalbeitiak argi dauka udalak lidergo papera bete behar duela: "Udalak euskararen aldeko lidergoa ongi transmititu behar du. Herritarrak eredu arabera funtzionatzen du, horien arabera izaten ditu jarrera sozial ezberdinak. Horregatik, Tolosako Udalak euskaraz bizi eta lan egiten duen erakundea

dela adierazten badu, herritarrak hartuko duen mezua 'hemen euskaraz bizi behar dugu' da".

UEMA sarea

Finean, UEMAko kide izatea "gauza komun bateko partaide izatea" dela dio UEMAko koordinatzaile Aizbea Renteriak. Tolosari zertan eragingo dion galdetuta, Aizbea Renteriak Tolosako Udalak dagoeneko duen euskara zerbitzuarekin "osagarri" bezala definitu du UEMAren lana herrian: "erabileran planetan proposamenak aurkeztu ditzakegu, langileei trebakuntza saiok eskaini ahal dizkiegu...". Hala ere, Aizbea Renteria esanetan, UEMAren benetako indarra osatzen duen sarean datza: "UEMA herri asko gara eta askoren artean indar egiteko ahalmena dugu". Izan ere, sare horren baitan udalen gainetik dauden erakunde ezberdin horiei "Osakidetza, Eusko Jaurlaritza, Lanbide..." erantzun eman eta bitartekari lana egiteko ahalmena du erakundeak. Eta bestetik, sare izaerak herrien arteko bitartekaritza dakarrela dio UEMAko koordinatzaileak: "herriren batean hutsuneak

ZALBIDE
Tolosa Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.
Ostirala, larunbata eta igande
eguerditan irekita, iluntzetan
egunero.

Zalbide baseria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176

SANTAMARIA
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoak erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantziarako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA

gizarte
kutxa

J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK

Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



antzematen baditugu eta beste herri batean hutsune horiek beteta baldin badaude, zubi-lan horretaz arduratzen gara”.

UEMA sarea egun 66 herrik osatzen dute baina martxoaren 16an honako zifra dezente handituko dela aurreikusi dute UEMA ordezkariak. Herri txikiei zerbitzua emateko jaio bazen ere, egun Mankomunitateko partaide diren herrien izaera ere aldatu egin da. Biztanleria kontuan hartuta, herri handi ezberdinak erakundearen partaide dira egun: Zarautz, Azpeitia, Bergara, Bermeo... Egoera honek, kontraesana ere sortu du UEMA barruan eta aurrera begira “estrategia eta lan ildoetan moldatu beharra” ekarriko diola, aurreratu du Iñaki Irazabalbeitiak.

Hala ere, oinarrian inportantea ezbaierik gabe, herriek sortzen duen “sarea” azpimarratzea da udal zinegotziaren ustetan: “euskararen artean sare bat sortzen da, euskararen lurraldea osatuz. Ikuspegi soziolinguistikotik, garbi dago hizkuntza bat bizirauteko hizkuntza hori sozialki nagusi izango duen lurralde propioa behar duela. Eta UEMAk lurralde horiek osatzen eta egituratzen laguntzen du”. Irazabalbeitiak Belgika eta Suitza herrialdeen adibideak plazaratu nahi izan zituen argibide gisara: “Suitza eta Belgika herrialde eleantitzak direla esaten da; herrialde barnean zonalde

bakoitzak bere hizkuntza dauka. Gizarteak normalean hizkuntza batean funtzionatzen du. Tolosan eta Tolosaldean gure ikuspegitik, euskarak izan behar du hizkuntza sozial nagusia”.

Euskararen normalizazioan aurreratuenak

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak egindako azterketen emaitzen arabera, UEMA herriak euskararen normalizazioan aurreratuenak dira. Gauzak honela, Iñaki Irazabalbeitiari Tolosako egoeraren balorazioa eskatu zaio. Euskara politika arduradunak euskarak Tolosan azken 30 urtetan egindako bilakaerari egin nahi izan dio erreferentzia: “ez nuke autokonplazientea izan nahi baina aurrekoek eta guk egindako lanaren ondorioz, euskararen normalizazioak pauso handiak eman ditu azken 30 urtetan Tolosan”.

Alde batetik, ikasle guztiak D ereduan matrikulatuta daude egun Tolosan eta bestetik euskaldun portzentajearen ere datu esanguratsuak eman dira gaur egungo euskaldun kopuruaren %70 hori eskuratu ahal izateko. Tolosako Udaleko euskara zerbitzuak ahalbidetutako datuek erakutsi bezala, 1981ean euskararen erabilera Tolosan %20-tik behera kokatzen zen eta 30 urtetan zifra bikoiztea lortu da, egun %40-50 horren

tartean kokatuz. Gazteen datuak aztertuta, erabilerak are gehiago egin du gora azken hiru hamarkadetan, 1981eko datuak hirukoizteraino.

Izan ere, azken hamarkadetan emandako aldaketaren erantzule, besteak beste ezarritako normalizazio planak badira ere, Tolosa inguratzen duten herri txikiek ere zeresan handia izan dute. Horrela goraipatu nahi izan du euskara zinegotziak: “neurri batean esan dezakegu Tolosa bada goela euskararen alorrean zorretan inguruko herriekin. Izan ere, ez hainbeste orain, baina duela urte batzuk euskararen erabilera larunbategiaren, jendea azokara etortzen zenean, izugarri hazten zen. Nolabait herri horietako euskaldunek lortu dute, neurri batean, Tolosan euskara bizirik irautea”.

Gauzak honela, azken 30 urtetan aurrerapauso garrantzitsuak eman badira ere, aurrerantzean ere lanean jarraitzeko argazkia erakusten du Tolosako herriak. Eman beharreko pausoak erabileran zehaztu behar direla argi dauka Iñaki Irazabalbeitiak: “erronkak badaude, batez ere esparru ez formalean erabilerari dagokionez. Inguratzen gaituen gizarte oso erdaldua da, gaztelaniako *in-put* ugari jasotzen ditugu egunean zehar, askotan aisialdiarekin eta ondo pasatzearekin lotuta.

Badugu erronka bat aisialdi eskaintza euskaldunarekin”.

Egoera honekin lotuta Irazabalbeitiak bestelako erronka bati ere egin nahi izan dio erreferentzia; familia transmisioari, etxeko hizkuntzari, alegia. “Momentu honetan Tolosan guraso diren askok eta askok ez dute euskara etxetik jaso, ikastolatik jasotako euskara dute; beraientzat gaztelaniak aritzea naturalagoa da eta ziurtatu behar dugu familia horietan euren seme-alabei euskara transmitituko dietela, etxean giro euskalduna sortuko dela. Hau baita ohitura sozialak aldatzeko modu bakarra”.

Arnasgune izateko bidean

Udalerri Eskaldunen Mankomunitateak UEMA barruan dauden herriak, Mikel Zalbideren definizioa harturik, arnasgunezatu ditu. Hau da, “euskara ‘bere kaban’ sentitzen den bilgunea, inork xaxatu eta eraso gabe”.

Definizio honetatik abiatuta eta amaitzeko, Iñaki Irazabalbeitiari Tolosa egun arnasgune ote den edota UEMAn sartzeak arnasgune izaten lagunduko duen galdetu zaio. Bere erantzunak etorkizun hurbileko asmo eta desioei egiten die erreferentzia: “arnasgune izateko helburua dugu; bidean ari gara, pausoak ematen ari gara”.



Helburuak

Hastapenetik UEMAREN helburu nagusiak ondoregoak izan dira:

1

Udalerri euskaldunetako herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua, euskaraz izan dadin bideak urratzea.

2

Udalerri euskaldun guztiek bat eginik euskara nagusi izango den lurruna osatzea.

3

Udalerri euskaldunen garapen sozio-ekonomikoa eta sozio-kulturala bultzatzea.

Xirimiri
Txokolategia
Xabier Izaguirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

ELUSTONDO
ELEKTRIZITATEA

Argi lanak
Iluminazioa
Antenak

lurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

Zumardi

SEGUROS
BILBAO



Aholkularitza
integrala

Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Martin
Eceizabarrena

Instalazio
erreforma
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobi.: 608 774 822

matilda

zure moda osagaien denda

Korreio Kalea, 3
Tolosa



Tolosaldeko osasun zerbitzua kezka iturri

Tolosaldeko osasun publikoaz ardura azaltzen duen elkartearekin bildu eta orain artean egindako lanaren balorazioa jaso nahi izan du Galtzaundik. TOPA izan da hizlari, Tolosaldea Osasun Publikoaren Aldeko koordinakundea, alegia. Mintzagaia ordea, 2012ko urtearen balorazioa izan da, Tolosaldeko osasun publikoaren egoera eta Osakidetza eta Invinza enpresaren arteko hitzarmena.

Erredakzioa

TOPAk 2012ko Tolosaldeko Osasun Publikoaren balorazioa egin asmoz, azken urteotan pribatizazioaren alde ematen ari diren pausoak eztabaidan jarri nahi izan ditu. Horretarako, oinarrian Asuncion Klinikaren kudeatzailea den Invinza enpresa eta Osakidetza, Eus-

kal Osasun Publikoaren arteko hitzarmena hizpide izan du. Finean, TOPAk bere sorreratik helburuan izan duen eskakizun berberaren alde egin nahi izan du: Tolosaldeak kudeaketa publikoko ospitalea izatea, alegia.

Kudeaketa pribatuko osasun publikoa da Tolosaldean indarrean dagoen eredu. Bertako enpresa pribatuaren eta erakunde publikoaren arteko hitzarmena sinatzerakoan "Osasun arreta eredu berria Tolosalderako" proposatu eta zabaldu zuten esku-orrien bitartez. TOPAk bertan aurkeztutakoa ez dela bete azpimarratu nahi izan du. Aipatu esku-orri hauetan Tolosaldea EAEan eskualdeko ospitalerik ez duen eskualde bakarra dela aitortuz, horren aurrean biztanleriaren egoera hobetu asmoz hainbat proposamen aurkeztu zituen: espezialitate anbulatorioaren itxiera, arreta

espezializatua klinikara pasatzea, ospitale arreta klinikara pasatzea eta ospitale zerbitzu berriak sortzea.

Asebetetze inkesta abiapuntu

Aipatu hitzarmena, hasiera batean bi hilabetez sinatu zen, ondoren urtebetez eta guztira gehienez 5 urteko iraupena izan dezake, urtero berrituz. Horretarako bete beharreko eginkizunen artean, klinikaren enpresa kudeatzaileak egindako ebaluazioa dago. Invinza enpresak ebaluazioa aurkeztuta, TOPAk aipatu ebaluazioa baliogabetu nahi izan du: "ebaluazioa baino asebetetze inkesta de enpresa honek aurkeztu duena. Oso azaleko kontuak galdetu zaizkio gaixoari, inkestatuen 2/3ak 65 urte gorakoak dira gainera". TOPAk jakinarazi bezala, inkesta honek asebetetze maila altua azaldu du arreta, informazioa, langileen errespetu eta adeitasuna, intimitatea, gaitasun teknikoa eta profesionalen kudeaketa bezalako aldagaiei buruz galdetuz.

TOPAren esanetan ordea, errealitatea bestelakoa da: "1.000 kexa eta alegazio baino gehiago aurkeztu dira, gai zeharo ezberdinak jorratuz: itxaron zerrendak, Tolosaldean orain artean existitu gabeko itxaron zerrendak hasi dira, adibidez, kardiologian 33 eguneakoak, digestiboan 75 eguneakoak eta oftalmologian 57 eguneakoak; mediku arruntak espezialista gisara lanean ari



dira; koordinaziorik gabeko sistema informatikoak daude; farmazia estaldura eskasa dago; espezialitateen larrialdietan hutsuneak daude; digestiboan espezialistaren hutsunea dago eta langileen murrizketa eman da".

Okerrera

Datua hauek eskuan harturik TOPAk argi dauka Tolosaldeko Osasun Publikoaren egoerak hobera egin baino okerrera egin duela: "gabeziak daude anbulatorio zerbitzuetan, ospitale zerbitzuetan eta kontratutako zerbitzu berriak ez dira hasi edota osatugabe hasi dira". Kardiologia, traumatologia eta oftalmologia dagoneko klinikara pasa dira baina behar baino langile gutxiagorekin itxaron zerrendak areagotuz. Digestiboa, neurologia eta dermatologia ordea, ez dira oraindik Klinikara pasa

baina langile kopurua murriztu egin da, itxaron zerrendak handituz.

Klinikak eskaini beharreko zerbitzu berriak ere betegabe daudela salatu du TOPAk: "etxe-ko erreabilitazioa, ortogeriatría eta erresidentziako psikiatria zerbitzua 2012ko martxoan hasi behar ziren baina momentuz ez dira hasi eta etxeko ospitalizazioa berriz behar baino langile gutxiagorekin eta espezialistak ez diren medikuekin hasi da".

Langile gutxiegi

TOPAk langile gutxiegi dagoela salatzen du gainontzeko eskualdeekin, biztanle eta langile kopuruak kontutan harturik, konparaketa egin nahi izan du. Konparaketarako aztertutako datuak Zumarraga, Debagoiena, Mendarola eta Bidasoa ospitalekoak izan dira. Aipatu ospitaleek batz

bestez 82.264 biztanleri ematen diote arreta eta Tolosaldeko Asuncion Klinikak ordea 65.000 biztanleri. Hipotesiak hipotesi biztanleria eta espezialista proportzio berdina eskualdeko ospitale publiko hauetan eta Tolosaldean mantenduta Tolosaldeko datuak bestelakoak lirateke. Adibidez batzuk plazaratu ditu TOPAk: kirurgian egun 9,6 espezialista daude baina kudeaketa publikoa izanda 12,5 behar dira; barne-medikuntzan 10,5eko datua, 18,4ra pasa behar da. Hau da, 20,1eko espezialista kopurua 30,9koa izan behar da. "Klinikak gutxienez espezialista kopurua %53an gehitu beharko luke", azaltzen du TOPAko ordezkariak. "Langile falta honen eragina itxaron zerrendetan antzematen da; pertsonal gutxiago du klinikak, gaixo gutxiagori eman ahal dio arreta eta itxaron ze-

rrendak geroz eta luzeagoak dira".

TOPAk datu hauek guztiak eskuan dituela Asuncion Klinikako "osasun arreta eredu berria" "desastre hutsa" bezala kalifikatu du. Are gehiago, "eredu berri honekin ez gara gainontzeko eskualdeen parean jarri eta ez gara inoiz jarriko, gure zalanztza eta kezkarik handiena, agian beste eskualdeak eredu honetara bideratuko dituztela da. Besteek jasotzen duten zerbitzutik gero eta urrunago gaude Tolosaldean", luzatu nahi izan dute TOPAko ordezkariak. "Osasun Publikoaren baitan adibidez, Madril eta Valentzian gertatzen ari dena EAEa etor daiteke; Tolosaldea probarako eskualdea da; hemen ez bagara kexatzen gainontzeko eskualdeetara bideratuko dute honako ereduak. Datuen azterketarekin batera, TOPAk Invinza eta Osakidetza-ren arteko hitzarmena bertan behera geratzea eskatzen du, eskualdeko ospitale publiko baten alde eginez.

Aurrerantz

Gauzak honela, aurrerantz TOPAren egitekoa lanean eta borrokan jarraitzea izango da: "urtebete baino gehiago daramagu borrokan, 19.000 alegazio jarri, 3 manifestazio ospatu eta jendeak ez du etsi. Jendearen babesak indarra ematen digu lanean jarraitzeko".



Xabier Bengoetxea

"Hizkuntza indarberritzeko gune nagusia ingurune hurbila da"

Xabier Bengoetxea Muxikak Soziolinguistika Klusterreko V. Hausnartu Euskal Soziolinguistika Lehiaketako bigarren saria eskuratu berri du. "Arnasgunea. Ezaugarriak. Zenbait arnasguneren egoeraren behaketa" lanarekin. Lan horretan, Asteasu, Berastegi, Amezketa eta Alegiako ezaugarri soziolinguistikoak gertutik behatu ditu. Ondorengo elkarrizketan gaiarekiko hurbilpena egiten da. Ikerketa lanaren laburpen osatua BAT Soziolinguistika Aldizkari espezializatuan kaleratuko da.

Naiara Roldán de Aránguiz

Xabier Bengoetxea lanbidez irakaslea da eta egun Lasarte-ko Berritzegunean Hizkuntza Normalkuntza Teknikari lanetan dihardu. Ikerketa bere aisialdian garatu du. Elkarrizketan ez ditu ahaztu lana burutzeko gela-argazkiak egiten, kultura-kontsumoaren galdeketa pasatzen eta

herriko beste hainbat datu bilduz lagundu dioten irakasleak: Asteasuko Eskolako Aitor Atxega, Berastegiko Izaskun Ezeiza, Amezketa Lurdes Larreta eta Alegiako Larraitx Artano.

Nondik sortu da "Arnasgunea. Ezaugarriak. Zenbait arnasgu-

neren behaketa" lana egitearen kezka?

Arnasguneak funtsezkoak dira hizkuntza baten indarberritzean. Gurean, Mikel Zalbidek sakonki landu du arnasguneen gaia. Zalbideren lan eskerga horretatik abiatuta, gure arnasguneetan zer gertatzen den, M. Zalbidek deskribatutakoa betetzen ote den, han aipatutako aldagaiak ematen ote diren behatu nahi nuen gertuko arnasguneetan. Horretarako, 12 herritako datu demolingüistikoak aztertu ditut eta lau herri zehatzetan, horien osagarri, beste zenbait esparru ere izan ditut aztergai. Gure gertuko arnasguneetan zer joera nagusitzen ari diren aztertu nahi izan dut.

Lehenik, ezinbestean, arnasguneak zer diren definitzea dago-kigu...

Asko laburtuta, euskarari arnasa lasai ematen dioten espazio fisikoak dira arnasguneak. Bi ezaugarri nagusi dituzte: euskaldunen kopurua, dentsitatea, %80 edo gehiagokoa izatea (hau ez da muga zurrin bezala hartu behar, erreferentzia operatibo bezala baizik) eta hizkuntzaren transmisioa modu naturalean ematea. Aurreko belaunaldietatik hurrengo belaunaldietara, inolako plan berezirik gabe, transmititzen da hizkuntza. Hizkuntza bizi-bizirik dauden tokiak dira arnasguneak. Hizkuntza-komunitate trinkoa da arnasgunea.

Tolosaldeko eta Goierriko 12 herriren Eustat-eko datuen azterketa (1991, 2001, 2006) egin duzu lehenik. Datu horiek euskaldun kopuruan, ama-hizkuntzan eta etxeko hizkuntzaren erabileran zer nolako joera nagusitzen ari

den adierazten dute?

Herri guztietan joera berdina ematen da, batzuetan pikoagoa eta besteetan samurragoa den arren. Batetik, euskaldunen dentsitatea beheraka joan da. Ama-hizkuntza euskara dutenena ere bai. Etxean erabiltzen den hizkuntza euskara hutsa izatetik portzentaje beheraka joan da eta euskara eta erdara biak nahastuz erabiltzen deneko erabilera goraka joan da. Horrek erakusten du hizkuntzaren biztanle dentsitatea beheraka joateaz gain, garrantzitsua dena, hizkuntzaren erabileran deskonpartimentazioa gertatzen ari dela.

Euskaraz guztiz funtzionatzen zuten etxeen portzentajea handiagoa zen lehen. Orain erdarak sarbidea du eta etxeok euskaldunak izan arren, badago hizkuntzaren aldaketa etxe berean, askotan euskara eta erdara tarteatzen dira.

Zer nolako ondorioak sor ditzake deskonpartimentazio horrek?

Hizkuntza baten bizi-iraupenean oso garrantzitsua da hizkuntza horrek bere esparru sozio-funtzional batzuk berarentzat bakarrik izatea. Deskonpartimentazioak hori apurtu egiten du. Diglosia ematen zenean bi hizkuntzen arteko banaketa sozio-funtzionala ematen zen; esparru batzuetan euskaraz funtzionatuz eta beste batzuetan erdaraz. Herri txiki horietan etxean, auzoan eta ingurune hurbilean dena euskaraz egiten zen nahiz eta gero eskola edo administrazioan erdaraz funtzionatu. Gaur egun euskarak alor batzuk irabazi ditu baina deskonpartimentazioaren ondorioz hizkuntza nahasketa hori etxeraino sartu da. Diglosia-

rik ez dago jada. Deskonpartimentazioa mintzaldaketarako lehen pausoa izaten da sarritan. Lehen-bizi euskaraz egiten zen jardunbide horietan, gero euskara eta erdara nahasten dira eta azkenik hizkuntza hegemonikoa eta nagusia inguruan erdara denez eta kontsumo-kultura etab. erdaraz jorratzen denez, erdarara lerrotatzen joateko arriskua hor dago.

Sakonean Tolosaldeko 4 herrietako (Asteasu, Berastegi, Amezketa eta Alegia) ikasleak aztergai izan dituzu. Zer nolako ondorioak atera dira gela-argazkiak osatzeko?

Gela-argazkiaren emaitza, nagusitasun-moldaerazko taula deskriptiboak dira. Une jakin bateko nagusitasun-moldaera. Gela horietako ikasleen artean zein hizkuntza nagusitzen den jardungune bakoitzean adierazten du. 6 jardungune aztertu dira: familia, auzoa eta kalea, eskola, komunikazio alorra, kirola eta eliza.

Taula horietan joera antzekoak antzematen dira. LHko 4. mailako eta DBH 2. mailako ikasleak euren jardueretan portzentaje oso altuan euskaraz bizi dira bai etxean eta baita auzoan ere, baina kultur kontsumoaren esparruan gaztelaniaren indarra handia da.

Honetaz gain, azken 5 urtetako gela-argazkietan ere ikusten da haur horien euskara erabileraren beste alorretan ere, nahiz eta puntuazio hori oso altua izan, jaitzen doala. Eskola da jardungune euskaldunena, eta horren ondoren etxea ageri da. Baina etxean badago azpimarratu beharreko fenomeno oso esanguratsua: gurasoek beraien artean ari direnean, gurasoak seme-alabekin ari direnean baino puntuazio baxua-

goa dute. Asko hedatzen ari den fenomeno da.

Kultura kontsumoa da beraz, erderen presentzia handiena duena.

194 ikasleri egin zitzaion kultura-kontsumoaren galdeketa, hiru herrietan 4. mailakoei eta batean DBH 2. mailakoei. Galdeketa horietatik ateratako ondorioak funtsean ondorengoak dira: arnasgune horietako ikasleek gaztelaniaz ikusten dute, hein handi batean, telebista. Bideoak, filmak %83k gaztelaniaz ikusten ditu. Egunkari irakurrienak gaztelaniaz daude, musika-CDak...euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez paretsu. Interneten dabilzanetan, gaztelania gehiago erabiltzen dute. Oro har, beraien kontsumo kulturalaren hizkuntza gaztelania da nagusiki.

Ikasle horiek erdal mundutik elikatzen ari dira. Hori da ondorio nagusia. Ikasle horien erreferentzia kulturalak, euskara ez diren beste hizkuntzetan oratutakoak dira, batez ere gaztelanian. Horrek guztiak atal ezberdin askotan du eragina: darabilten hiztegi, termino eta esamoldetan, erreferente dituzten pertsonailetan, hizkuntzaren baliagarritasunaz egiten duten irudian etab.

Lau herri horiek osotasunean aztertuta euskaraz bizi direla esan daiteke?

Bai. Euskara hizkuntza nagusia da herri horietan. Etxean, kalean, auzoan, etab. Neurri handi batean dendetara eta tabernetara joan eta ez dago eragozpenik euskaraz bizitzeko. Oro har, merkataritza eta finantza-etxeetan ere ez dago arazorik. Jardungune nagusienetan euskaraz bizi dira. Beste kontu bat da, sumatzen di-



ren joerak norantz doazen, lehen esan dugunaren haritik. Ahultzen edo indartzen doazen da gakoa. Adibide bat jarritz: datuak biltzen lagundu zidan irakasle batek esan zidan lehendik guztiz euskaraz ezagutu zuen giro batean orain jende bera erosketak egitera joan eta, nahiz eta denak euskaldunak izan, erdararako joera hedatu dela. Zenbait gaietan erdara asko sartzen dela. Fenomeno berria da eta horrek ere zerikusia izango du jendea nondik elikatzen den; telebista erdaraz ikusten bada, hango programa komentatu nahi bada, erdarara jotzeko ohitura hartzen doa jende asko.

Gaiek nolabait agintzen dute hizkuntzaren erabileran?

Hori da. Neurri batean gaiek bideratzen eta lerrokatzen dute hizkuntzaren erabilera bera. Oso zaila gertatzen da, gai bat guztiz erdaraz landu baldin bada, gero itzulpena eginez euskaraz jartzea. Terminoak, esamoldeak etab. barneratzen joaten dira. In-

terferentziak, kode-aldaketak eta antzeko fenomenoak hedatzen doaz.

Paisaia linguistikoaren gabeziak lan-munduan ageri omen dira...

Herri horietan argazkiak ateratzen joanez gero, denda-izenak, etxe-izenak, etab. ia denak euskaraz daudela ikusten da. Paisai linguistikoa, lan munduan izan ezik, euskaraz dago. Lantegi askok ere izena euskaraz duen arren, bertako ordutegien abisuak, garajea libre uzteko abisuak eta tankera-koak ia osoki gazteleraz daude, salbuespenak salbuespen.

Zer nolako aldagaiek baldintzatzen dute euskara nagusi izan den jardunetan erdara sartzea?

Luze joko liguken, aldagai edo dislokazio ezberdinak azaltzea. Bat edo beste aipatzeko, nagusietako bat dislokazio-demografikoa izango litzateke. Herri horietan sekulako aldaketa demografikoa eman da eta ematen ari da azken urtetan. Urbanizazio berriek herri

horiek batetik biztanlez haztea ekarri du. Bestetik, hizkuntzari dagokionez, eguneroko bizitzan sekulako aldaketak eragin ditu. Urbanizazio eta aldaketa demografikoarekin batera, dislokazio soziokulturala ere gertatu da. Horiek era beste hainbat dislokazio motak ahuldu egin dute hizkuntza-komunitate horren trinkotasuna.

Arnasgune horiek arnasgune izaten jarrai dezaten zer da egin beharrekoa?

Lehenbizi kontzientzia hartu behar da: zer ari da gertatzen, zergatik ari da gertatzen, zer fenomeno eta joera ari dira nagusitzen arnasguneetan, ahultzen ari baldin badira zergatik ari dira ahultzen...

Horrelako galderak oso sakon aztertu behar dira eta ondoren galdera klabe bati erantzun behar zaio: zer neurri hartu behar dira, zer bide jarraitu behar dira herri horietan euskararen transmisioa belau-

naldi batetik bestera, indartsu eman dadin? Etxea, auzoa eta ingurune hurbila nola indartu aztertu behar da; horiek baitira hizkuntza bat indarberritzeko gune nagusiak.

Oso kontuan hartu behar da etxea, auzoa, familia... Inguru hurbil horrek duen garrantzia funtsezkoa da hizkuntza baten bizirautean eta indarberitzean. Hor dago gakoa. Horietan euskaraz jardun eta bizitzea oinarritzakoa da. Horietan goxatzen, oratzen eta birsortzen da hizkuntza sendoen.

Eskolak ere badu zeregin garrantzitsu bat. Arnasgune horien indargarri bilakatu behar du eskolak, ikasleak hitzun osoak, kontzientiak eta eragi-leak bilaka daitezzen.

Neurri zehatzetara pasaz geroz, eskolak hausnarketa soziolinguistikoa ere burutu beharko luke ikasleekin batera, hautu kontziente bat egin dezaten. Euskaldunak dira, baina ez dira euskaldun hutsak, beste hizkuntza batzuk menperatzen dituzte eta hautu bat egin beharra daukate. Euskaraz bizitzeko arrazoiak edota bizipenak behar dituzte.

Kultur kontsumoa sustatzeari buruzko neurriak hartu beharko dira; belaunaldi berriak euskaraz elika daitezzen eta beraiei erreferente kulturalak ere euskaldunak izan daitezzen.

Herriko eragile ezberdinen arteko elkarlana, aisialdiko eskaintza euskaraz izatea... eta beste hainbat.

Funtsean neurri zehatz batzuk hartu behar dira, herri horietako hizkuntza eta bere etnokultura modu naturalean eta indartsuan, belaunaldiz belaunaldi transmititu dadin. ☞

Irakurlearen begietatik



Eneritz Iraola
Irakurlea

Tik-tak, entzun dute belarri ondoan. Inoiz baino gordinago. Orratzek ihes egin nahian barrena zulatu diete. Hutsune bat nabari dute, zerk eragin duen oso ongi ez dakiten arren. Belarriak gortzeko ahaleginak egingo dituzte, bakoitzak bere ihesbidea topatzeko ahalegina. Baina, zahartzen ari direla noizbait onartu beharko dute. Funtsean denok bezala badakite, bizirik dauden artean erloju hotsa ez dela isilduko.

Karmele Jaio, Ez naiz ni

Berrogei urteren bueltan dabilzan hamaika emakume eta gizonezko bat dira protagonistak. Beraiei barneko eta kanpoko ispiluan islatzen dena gustuko ez eta ez dakite nora jo. Batzuk karramarroen antzera ibiltzen hasiko dira, atzean utzitako zerbaiten bila. Besteak berriz, berrikuntza gosez, ase ezinik dabil-tza. Guztiak nor diren argitu nahian, barruan duten zuloa bete nahian.

Karmele Jaiok ipuin liburu honetan, giza harremanen katea estutu du beste behin ere. Hamabi istorio bildu ditu. Dozena bat ipuin, eguneroko egoerak oinarrian hartuta. Lehendabiziko ximurrak agerian dituzten emakumeen begietatik kontatuak guztiak, Aterkia ipuina izan ezik. Klase ertaina, hirigunean kokatua. Irakurleak nabaritutako du errealtateetik lapurtutako zatiekin osatu dituela istorioak. Liburuko Leire, Gema, Marta



... ezagutzen ditugun Miren, Josune edo Aintzane izan litezke.

Gorputza zimurtzen ikusi eta antsietatea sentitzen du batek. Bizitzan atzean utzitako aukera haietara ihes egingo duen oreka topatu du idazleak hori guztia adierazteko. Ongi menperatzen du erritmoa eta irakurleak erraz darama haria. Ustekabeko bukaerak baliatu ditu batzuetan, errepikatzen diren elementuekin egindako jokoak

ko roletara mugatzen dira beraiei kezka. Azalekoegiak, pentsa dezakete batzuek. Niri ez zait hala iruditu, labankada sakon batek adinako mina eman dezakete eguneroko urratu txikiek. Zauriak sendatzeko bakoitzak bere botika du. Ironia ukitu bat ere badute sendagaiek: lokartu aurretik jandako txokolate zatia, itzali zen sugar baten kea, bularretako berria, Reikia... parean jartzen zaien edozeri eusten diote helduleku bila.

Aurrekoliburuetan bezala, inkomunikazioaren gaia landu du. Pertsonaiek esan gabe uzten duten hori, ipuinetako askotan garrantzitsuagoa da esaten dutena baino. Beharrezkoa zen oreka topatu du idazleak hori guztia adierazteko. Ongi menperatzen du erritmoa eta irakurleak erraz darama haria. Ustekabeko bukaerak baliatu ditu batzuetan, errepikatzen diren elementuekin egindako jokoak

besteetan... Pare bat aukeratzekotan, *Bitxiloreak esku artean* eta *Ekografiak* aipatuko nituzke. Lehenengoa, istorioa kontatzeko moduagatik, urtarok lerroz lerro aurrera doazela nabaritzen baita. Bigarrena berriz, errealtate bat hain modu gordinetan kontatzen asmatzeagatik.

Belaunaldi baten argazki argia da Karmele Jaioren azken lana. Ez diren horretatik abiatu eta diren horretara iristeko bidean dauden pertsonen argazkia.

Gi^za Eskubideen astea

Hirukidek ikasleen heziketan paper garrantzitsua jokatzeko du eta ikasleak pertsona gisa hazi eta gizaki autonomo moduan hez daitezkeen eragin nahi du. Hori dela eta, ikastetxeak inguratzen gaituzten gizartearen arazoei begiratzea proposatu zuen urtarilaren azken egunetan; izan ere, Giza Eskubideen Astea burutu zuen. Helburua eskolako ikasleek nahiz tolosarrek gogoeta egin eta hausnarturikoa Udaletxeko agintariei helaraztea zen.

Astearen zehar ikasleek hainbat gai landu zituzten; hala nola, umeen esplotazioa, erlijioen arteko elkar ulertzea, haur esklabutza, tolerantzia, berradiskidetzea... Gaiak jorrazteko orduan, Hirukidek ikasleen adina hartu zuen hizpide eta gelan gaiari buruzko informazioa bilatu ondoren, ondorioak eta hausnarketak kartulinatan islatu eta eskolako pasilloetan ipini zituzten. Ekintza honi esker ikasleak jabetu ziren jende askoren egoera tamalgarriaz eta hauei laguntza eskaini behar zaiela ondorioztatu zuten.

Dena den, berrikuntzarik nabarmenena Trianguloan jarritako postontzi erraldoia izan zen. Bertan eskolako ikasleek eta hainbat tolosarrek krisialdiari buruz eta honen aurrean agintariei zer daukagun eskatzea paper batean idatzi eta postontzira bota zuten. Hirukidek jasotako guztia alkateari eman dio duela egun batzuk.

Laburbilduz, era honetako ekintzen

bidez besteen egoeraz ohartu eta gure jokabideak nolakoak izan behar diren ikasten dugu, baita benetan balio duena baloratzen ere, txikitatik bizitzako xehetasunetan arreta jarritz.

Mahaingurua

Bestalde, Hirukidek hitzaldi bat eta mahai-inguru bat antolatu zituen Giza Eskubideen Astearen baitan. Mahai-inguruan Pako Garmendia (Soziologian katedraduna eta Deustuko irakaslea), Jon Sardon (Caritaseko Laguntza Etxea, etorkinen harrera etxeko kidea), Fatima Otegi (Caritaseko lehenengo harreara egiteko arduraduna) eta Koldo Casla (Ararteko Kabineteko zuzendaria) aritu ziren.

Hitzaldi horretako funtzionamendua oso sinplea zen; lehenik lagun bakoitzak 10 minutu zituen bere erakundearen zereginak azaltzeko eta baita beraien datuak azaltzeko, eta horren ondoren, bertara joandakoek galderak egiteko aukera izan zuten.

Lehenik eta behin, Ararteko Kabineteko ordezkaria hasi zen hitz egiten. Esan zuenez, bere erakundeak jendearen arazoak aztertzen zituen. Hain zuzen ere, beraien eskubideak ez direla betetzen oharrean, bertara joaten dira eta beraien kezak entzuten dizkiete. Ondoren, agintariei herritarren kezak helarazten dizkiete. Honekin batera, erakunde honetara joaten ari den lagunen



Aida Rey
Julen San Martin
Hirukide Ikastetxea.
DBH 4. maila

kopurua izugarri igo dela jakinarazi zuten.

Jarraian, Karitaseko bi ordezkariak hartu zuten hitza. Hauek ere beraien lana azaldu zuten. Karitasen lana behartsuei laguntzea da, eta azaldu zuten, gaur egun behartu asko daude, baina jende asko gaur egun Karitasera joaten da etxerik gabe geratu delako, eta ez duelako ez dirurik jateko ezta tokirik lo egiteko ere. Jantoki sozialei zegokienez, joaten den jendearen perfla asko aldatu dela azpimarratu zuten.

Azkenik, Pako Garmendia psikologoak hitz egin zuen eta modu egokian azaldu zuen zer sentitzen duen egoera txarrean dagoen jendeak. Izan ere, horixe izango litzaiteke abiapuntua jakiteko nola jokatzen jende horrekin.

Parlaide guztiek hitz egin ondoren entzuleek galderak egin zituzten. Oso interesgarria izan zen eta jendea hitzalditik oso gustura irten zen.

Saldias Miguel

**CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**
N. D.G.S. J.1759

Bizi-asegurua
Kotxe-asegurua
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-asegurua
Denda-asegurua
Erretiroak
Inbertsio fondoko

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com

Tolosa Bit
Informatika Zereginak

Ordenagailuak eta konponentak
Enpresa eta partikularrentzako
Mantenimenduak

Oria kalea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es

HALCON
BIDAIAK

Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113

**errotatxo
okindegia**

Andia kalea, 3
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A
Tel.: 943 671 038

irakurri entzun ikusi

Zaindari ikusezina
Dolores Recondo

Ez zaio eleberrari intrigarik eta misteriorik falta. Amaia Salazar inspektoreak bi eginkizun ditu eleberrian: Baztan inguruan, eta batetik bat, Elizondo inguruan gertatzen ari diren neska nerabeen hilketak argitu, eta, hain larria ez badirudi ere, eleberriak aurrera egin ahala, hil ala bizikoa gertatuko zaio Amaia bere iraganarekin izan dituen arazo larriak konpontzea.

Bonberenea Txaranga 2003-2013 ...Etxean, zuzenean!
Bonberenea Txaranga

Norbaitek urteak betetzen dituenan ospatu egin behar dela esaten da. Bonberenea Txarangaren kasua da hau, izan ere taldeak 10 urte beteko ditu aurten. Lagun taldeak ongien dakien moduan ospatu du urteurrena, bere jarraitzaileei lan berri bat eskainiz.

Beerbug
Ander Mendia Etxebarria

Laburmetraia. Joek errepide ertzeko gasolindegia batean lan egiten du. Egun batez, garagardo bat hartzeko atsedean hartzea erabakiko du. Edariak gozatzeko aha-lerinak huts egingo dio, norbait lapurretan ari baitzaio muturraren aurrean.

Otsailaren 22tik martxoaren 8ra bitarteko hitzorduak

Kontzertua

Oskorri: Gabriel Aresti Rebiziting. Otsailak 22, ostirala. Tolosa, Leidor. 20.30



Ipuin Txokoa

Ipuin Txokoa haur liburutegian. Otsailak 22, ostirala. Tolosa, Errota Haur Liburutegia.

Kz Gunea

Albiztur. Otsailak 22, ostirala. 09.00-13.00

Antzerkia

Errauskine eta kristalezko oinetakoak. Luna Teatro. Otsailak 23, larunbata. Tolosa, Topic. 18.30


Pottola. Txalo Produzioak. Martxoak 1, ostirala. Tolosa, Leidor. 20.30

Mendiza- letasuna

Artzanburu. Otsailak 24, igandea. Oargi Mendi Elkartek antolatuta.

Ahoz Aho Jaialdia

Otsailak 25, astelehena. Urrup (Euskal Herria) eta Pollo Rosa (Euskal Herria). Tolosa, Amartz Auzoa. 22.00



Otsailak 26, asteartea. Iñaki Carretero (Euskal Herria). Tolosa, Amartz Auzoa. 17.30
Otsailak 27, asteazkena. Ines Bengoa (Euskal Herria). Tolosa, Amartz Auzoa. 17.30

Otsailak 27, asteazkena. Barry Manley (Irlanda) eta Pollo Rosa (Euskal Herria). Tolosa, Otsabi. 22.00

Otsailak 28, osteguna. Soledad Fellosa (Uruguay) eta Alekos (Kolonbia). Tolosa, Helduen Hezkuntza Iraunkorra. 16.00

Otsailak 28, osteguna. Martha Escudero (Mexico) eta Soledad Fellosa (Uruguay). Tolosa, Orbela Taberna. 22.30

Martxoak 2, larunbata. Maite Franko (Euskal Herria). Tolosa, Bonberenea. 11.30

Martxoak 2, larunbata. Alekos (Kolonbia) eta Martha Escudero (Mexico). Tolosa, San Esteban. 17.00

Martxoak 2, larunbata. Ahoz Aho Gala Nagusia. Ahozkotasunaren jaialdiko artista guztien emanaldia. Tolosa, Leidor. 19.30

Martxoak 7, osteguna. Barry Manley (Irlanda) eta Itziar Rekalde (Euskal Herria). Tolosa, Orbela Taberna. 22.30

Gipuzkoa Encounter

Martxoak 1 eta 3 bitartean. Tolosa, Usabal Kiroldegia.

Hitzaldia

Osasuna eta Emakumea. Martxoak 5, asteartea. Tolosa, Kultur Etxea. 19.00. Bilgune Feministak antolatutako ekimena.

Bertso Emanaldia

Hau ez da kasualitatea. Martxoak 8, ostirala. Ainhoa Agirreazaldegia, Alaia Martin, Mirren Amuriza eta Uxue Alberdi. Tolosa, Leidor. 20.30



Erakusketa

Mariona Masgrau: bidaia bat txotxongiloen mundura. Martxoaren 10a bitartean. Tolosa, Topic.

Odol Emaileak

Alegia. Otsailak 22, ostirala. Sendagilearen etxea, 19.00. Gipuzkoako Odol Emaileak

langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbidek diruz lagunduak

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Zoru erradiatzaile instalazioak	2013.01.14	20
Aurkezpenetarako aplikazio informatikoak: informazio-grafikak	2013.01.30	30
Espezifikazio teknikoak txirbil-harroketa bidezko mekanizazio-prozesuetan	2013.02.04	60
Galdaragintzako produktuen karakterizazioa (Solid Edge)	2013.02.18	80
Berokuntza instalazioetarako erregulazio automatikoen elementuak	2013.02.25	20

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu?
Jo ezazu Tolosaldea GLH Biko bulegora.
Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa
Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com
www.ikastn.com



Goardiako farmaziak

Ostirala, 22 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	Asteazkena, 27 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	Astelehena, 4 Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra
Larunbata, 23 Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	Osteguna, 28 Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa	Asteartea, 5 Morant R. (Zabalarreta 1) Tolosa
Igandea, 24 Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa	Ostirala, 1 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	Asteazkena, 6 Morant R. (Zabalarreta 1) Tolosa
Astelehena, 25 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	Larunbata, 2 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	Osteguna, 7 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
Asteartea, 26 Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra	Igandea, 3 Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa	Ostirala, 8 Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezket-Abaltzisketa-Albiztur	943 653 212	Gernikako Arbola, hitzor	943 006 900
Osasun zentroa		Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo		Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	943 654 737	(larrialdia)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde		San Kosme San Damian	
Medikua	943 652 339	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain		Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	943 889 003	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	(asteazk.)	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain		lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	943 683 361	Larrialdia, Suhiltzaileak	112
Bidegoian		DYA	943 672 536
Medikua	943 681 134	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu			943 651 425
Osasun etxea	943 672 411		943 673 022
Ikaztegieta		Ertzantza	943 675 320
Medikua	943 653 329	Tolosa Gasa	
Irura		Lizartza	
Osasun zentroa	943 690 720	Medikua	943 682 077
Tolosa		Orendain	
Anbulatorioa, larriald.	943 650 931	Medikua	943 655 595
San Esteban, hitzordua	943 006 800	Orexa	
		Medikua	943 682 228

Galtzaundi 378
13ko otsailak 22

jarri zure
publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6
20400 Tolosa
publizitatea@galtzaundi.com
943 655 004
www.galtzaundi.com



**SANTA
LUZIA**
GARAJEA

Grua zerbitzua
24 orduetan

943 653 491
943 653 874
943 653 985
943 806 020
Santa Luzia, 1-TOLOSA

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behe
20400 Tolosa

Muxutruk

Lana

• Ingeleseko eta frantseseko klaseak barka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664 160268

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 688 642 137

• Klase partikularrak. Maila guztiak, talde txikietan. Esperientzia. (Kristina). 652 739808

Etxebizitza

• 90m²-ko pisua salgai Anoetako solkorre kalean . Egongela handia, hiru logela, sukaldea, komuna, trasteroa, ganbara ta bi balkoi eguzkitsu Uzturreko bistekin. 130.000€ . 688887178

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Ariz.

• Villabonan ileapaindegia salgai edo alokairuan. Sartzeko prest. 630 099092

Erosketa

• Teutonia markako bigarren eskuko maxi cossia erosiko nuke. Interesatuak 635708540 zenbakira deitu mesedez. Mila esker

Horoskopoa

Otsailaren 22tik martxoaren 8ra arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21
Egindakoa konpontzeko garaia da, beselako bidea topatzeko unea. Hau da, profesionalki alternatibaren bila hasteko momentua, geldialdia ekidin behar zenuke. Iraganeko pertsona batekin harremana aldatu egingo da, faltan botako duzu.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21
Gai ekonomikoei aurre nola egin aztertu behar duzu, betebeharrak finantzarioek presio handia sortzen dizute, aurrekontuak gora jarraitzen du eta lan arazoak ere goraka jarraitzen dute. Zenbait komentario gelditu behar dituzu.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
Ideia berriak sortuko zaizkizu. Garai probetxugarria adi egonez gero, garai ezin hobea idazle, kazetari eta irakasleentzat. Aparteko dirua jasotzeko aukera. Ingurukoek lan munduan bultzada emango dizute.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
Aisialdirako denbora gehiago izango duzu, irudimenez aprobetxatu ezazu. Lan munduan ez zaude nahi zenukeen tokia eta horrek emozionalki bere eragina ere badu. Ez utzi osasun mailan ere eragina izaterik.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Erabakirik hartu nahi ez izateak, aurkarien aurrean ahultzen zaitu. Izen onaren eta diruaren galera dator. Nortasun ahuleziak naturaren kontrako hitzarmenak egitera bideratuko zaitu. Epaiketetako gaia itxi beharko zenuke.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Oraindik ez zara osatu eta berriro ere garai zaila hemen dago. Erantzuna zure esku dago, lanean gogoz aritu beharko zara eta egin beharreko aldaketak egin beharko dituzu.



libra

Irailak 23-Urriak 22
Aurrera egiteko garaian zailtasunak dituzu; lan munduan boterea dutenekin ideia trukaketa egin beharko zenuke. Diru aldetik, diru-sarrera garrantzitsuak izan arren, gastu altuak ere izango dira.



scorpio

Urriak 23-Azaroak 22
Egoerak sortzen dizun nekeak zure animoarengan uste baino eragin gehiago du. Diru-sarrera txiki bat helduko zaizu eta horrek denbora batez arnasa hartzeko aukera emango dizu. Egoera berria onartzea ezinbestekoa da.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21
Bizitzaren norabidea aldatzeko une aproposan murgildurik zaude, arazoak badituzu ere, baikorra izatea bezalako botikarik ez dago. Denborari probetxua atera; ikasi, mugitu, ekin, informazioa jaso, irakurri... Arazoak konpontzeko aukera duzu eta.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20
Arazo ekonomikoek erabateko lehentasuna dute, baina garai honetan kanpo erabakiek uste baino indar gehiago dute. Zure burua jarduera berri batean kokatzen hasi beharko zenuke.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20
Osasunarengan gehiago erreparatu beharko zenuke; medikuari noizean behin bisitaldia egitea onuragarria izaten da. Erabakiak hartzeko une apropos; familiak eta lagunak uste baino babes gehiago erakutsiko dizute.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20
Aro berri batean murgiltzera zoaz, erabaki garrantzitsuak hartuko dituzu. Errealitateak erabat baldintzatzen bazaitu ere, emozioek ere bultzada emango dizute; zure burua berriro asmatzeko gogoz zaude. Intuizioarengan konfiantza handia izan.



A P A I N D E G I A

Koxka apaindegia gorputzaren garbiketa proposatzen du Hidrolinfa metodo aurrendariarekin

Tolosako Korreo kalean kokaturiko Koxka apaindegia metodo berritzailea ekarri du bezeroen artera; Hidrolinfa, gorputzaren garbiketa oinetatik abiatuta. Ahoz-ahoz bezeroen artean azkar zabaldu eta medikuek sortutako metodologia honen berri eman du Amaia Agerrik, Koxka apaindegiko arduradunak.

Zer berritasun dakar Hidrolinfa tratamenduak?

Gorputzetik toxinak ateratzen ditu erreflexoterapia bidez, inolako kirurgia operaziorik gabe. 40 minututan, Hidrolinfak zikinak ateratzen dizkizu. Hainbat sesioen ondoren, bezeroek garbitasuna nabari dute, ari nago sentitzen dira, asma duenak arnasa errazago hartzen du, alergia duena hobeto sentituko da...

Nola funtzionatzen du?

Kanilako ura eta gatz pixka bat erabiltzen da, elektrizitate eroankortasuna izateko. Sodio kloruroak uraren eroankortasuna handitzen du, hidrogeno eta oxigenoaren zatiketa molekularra sortzen da, honela erabateko eroankortasuna eskuratuz; uraren atomoak negatiboki ionizatu egiten dira. Ioi negatibo hauek azalaren poro positiboetatik pasatzerakoan organismoa erlaxatzen dute, gune alkalinoak orekatzen dituzte eta alterazio organiko ezberdinen prebentzio gisara lan egiten dute.

Zein kasutan da gomendagarria Hidrolinfa tratamendua?

Gorputzetik toxinak ateratzeko metodoa da; egunero elikadura edo poluzioaren bitartez gure gorputzean metal ugari sartzen ditugu, gorputzean metatzen joaten dira eta ateratzeko metodo aproposa da. Osasun onura ugari sortzen



ditu, ondorengo kasuetan batik bat: zirkulazio arazoak, hanka eta oinen nekea, buruko minak, hilerokoak sortutako minak, artritis, artrosia, kolesterola, ultzera, diabetesa, bizkarreko arazoak, insomnia, depresioa...

Hidrolinfa metodoa erabili ezin dutenak ordea, ondorengoak: taupada-markagailua erabiltzen dutenak, epileptikoek eta hardun dauden emakumeak. Operatu berriek ere bi hilabetez itxaron behar dute Hidrolinfa erabiltzen hasteko.

Tratamenduaren oinarria oinetan kokatzen da. Zergatik?

Egia da oinak oinarria direla baina eskuetan ere egiteko aukera dago. Erreflexoterapiak agindu bezala, gorputzeko atal guztiak oinetan kokatzen dira. Oinen bidez organo guztiak tratatzen dira eta zikinkeriak ateratzen ditu. Uneoro tekniko batekin kontaktuan gaudela, bezeroaren gaixotasuna azaldu eta bete beharreko jarraibidea zehazten du.

Tolosan Koxka aurrendaria da honako tratamenduarekin. Zer nolako erantzuna eskaini dute bezeroek?

Gaixo dauden bezeroak gehiago nabaritzen dute. Jendea oso gustura dago eta ahaz-ahozkoak asko lagundu du, gertuko iritziak jasotzeak asko laguntzen du. Hidrolinfa eza gutzen duten medikuek gomendatzen dute gainera.



IBARRA

Euskalerrria 18-1

**AZKENEKO
DUPLEX-A
SALGAI!**
118M²
OSO EGUZKITSUA

**2 LOGELA
2 KOMUN
165.000 €-TIK**

**3 LOGELA
2 KOMUN
206.000 €**

Kalitatezko
materialak, diseinuko
sukaldez ekipatua.
garajeak ere
aukeran
informatu zaitez!



ORAIN
4 ETXEBIZITZA
LIBREAK
2 LOGELETAKOAK
165.000€-TIK
SUKALDEA EKIPTUA
INFORMAZIO
DEHAGOT: www.antzibar.com
Tel. 943.744.303
943.812.462 | ANTZIBAR

**ETXEBIZITZA
BIFAMILIARRA
270.000 €GATIK**

ALTZO

ERDISOTOKO OINA

BEHEKO OINA

LEHEN OINA

2. OINA



ANTZIBAR
CONSTRUCCIONES • ERAIKUNTZAK

Tel.: 943 812 462
www.antzibar.com